

2021  2026

LANEKO SEGURTASUN ETA
OSASUNERAKO EUSKAL
ESTRATEGIA



2021eko JARDUEREN MEMORIA

201eko Jardueren memoria



Barakaldo, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua: Memoria de actividades 2021 / 2021eko Jardueren memoria

Argitaraldia: 1.a, 2022ko urria.

Ale-kopurua: 20 ale.

Egilea: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Argitaratzailea: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita Bidea z.g.- 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Imprenta Garcinuño S.L.
San Vicente Errepidea 13 -48510-Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia).

Lege Gordailua: LG BI 00843-2022

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	7
2. HITZAURREA.....	9
3. JARDUERA-ARLOAK.....	11
3.1. Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa	11
3.2. Eragileen inplikazioa eta laguntza.....	16
3.3. Informazioa.....	20
3.4. Ikerketa	23
3.5. Prestakuntza.....	24
3.6. Jakintzaren hedapena	26
3.7. Prebentzio jardueraren kalitatea.....	29
3.8. Lan-baldintzen hobekuntza.....	29
3.9. Kudeaketan lan-arriskuen prebentzioa integratzea.....	31
3.10. Administrazioen arteko koordinazioa	32
3.11. Erakundearteko lankidetzak.....	35
3.12. OSALANen zerbitzuak eta prozesuak	38

1. AURKEZPENA



Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2021. urteko jardueramemoria aurkeztera gatoz. Ekitaldi konplexua izan da, COVID-19aren pandemiak eragindako geldialdiaren ostean lan-jarduera berreskuratzen hasi ginelako baina, era berean, guztiz libre ere ez geundelako egoera pandemia aurreko urteekin alderatu ahal izateko. Inguruabar berrietara apurka-apurka egokitu behar izan dugun urte bat izan da, bere gorabeherekin. OSALANek gogor ekin dio enpresei eta langile autonomoei beren eguneroko zereginean lan-arriskuen prebentzioa ezartzeko orduan laguntzen.

Prebentzioaren kultura hedatzeko orduan dituen eskumenetatik, gizarte-eragileekin, prebentzioko ordezkariekin, eta prebentzioaren arloan espezializatuak diren erakunde eta enpresekin etengabeko elkarrizketa izanik, laneko osasunaren eta segurtasunaren egoera eta bilakaera ikuskatzeko informazioa sustatuz eta erakundearteko lankidetzak estua bultzatuz, OSALANek hainbat sistema kudeatu ditu, besteak beste datuen gutxiengo multzoa edo osasun-zerbitzuen fitxategia; Lan Medikuntzako barneko mediku egoiliarren prebentzioko ordezkarien prestakuntza sustatu du; lantokiak bisitatu ditu horien irekieraren berri izan ostean; dena, beti, prebentzio-ekintzaren eta lan-baldintzen kalitatean hobekuntzak indartzeko ahaleginean.

Eta, noski, beste gauza askoren artean, 2021ean «Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren 2021-2026 Euskal Estrategia» prestatu eta Kontseilu Nagusian onartu du. Estrategia horrek oinarritzako hiru ardatz ditu abiapuntu:

- Herritarrak, gizartea izan dadin lanpostuetan prebentzioa eskatzen duena.
- Prebentzioan lan egiten duten erakundeak eta enpresak, gauzatzen dituzten ekimenetan kalitatea lortu nahi dutenak.
- Eta administrazio publikoak, Estrategia garatzeko arauak ezarri eta tresnak eskaintzen dituztenak (gidak, jardunaldiak, aholkularitza eta abar).



Ondorioz, ikuspegi horren arabera, enpresariak, prebentzio-zerbitzuak, langileak eta horien ordezkariak animatu nahi ditut, administrazio publikoak barne, lanean jarraitzera, arriskuen prebentzioaren gaineko arreta eskakizun kolektibo bat izan dadin, are soziala, eta, ondorioz, lan-baldintza seguruak, osasuntsuak, jasangarriak eta inklusiboak lor daitezzen.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

2. HITZAURREA

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzako administrazio-erakunde autonomoa da, Lan eta Enplegu Sailera atxikia. Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako jarduerak kudeatu, koordinatu eta sustatzeaz arduratzen da. Barakaldon ditu zerbitzu nagusiak, eta, horrez gain, beste hiru lurralde-zentro. Zentro bakoitza bere dimentsioen eta jardueraren arabera antolatzen da, hainbat arlotan, ekoizpen-sektore hauek barne hartuz: eraikuntza, lehen sektorea, industria, zerbitzuak, laneko osasuneko unitatea eta administrazioa eta giza baliabideak. 187 profesionalak lan handia egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) langileen laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko, urtean 15 milioi euroko aurrekontuarekin.

2021. urtean, OSALANek lidergotza hartu du «Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren 2021-2026 Euskal Estrategia» berria egin eta garatzeko orduan, eta inplikaturako gainerako erakundeekin batera, lan-ildo estrategikoak garatu dira, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunaren egoera berriaren azterketaren ondoriozkoak, bai 2021-2026 Estrategia berrian aurreko 2015-2020 Estrategiaren azken ebaluazioan antzemandako hobekuntzak sartzearen ondoriozkoak.

Hala, OSALANek 2021. urterako bere jarduera ezarri du, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren 2021-2026 Euskal Estrategia berrian aurreikusitako helburuen inguruan. Hori horrela, sortzen ari diren arriskuak, muskulu eta hezurretako nahasmenduen nagusitasuna, genero-ikuspegia txertatzeko beharra, lan-arriskuen prebentzioko gizarte-baldintzak, baldintza horiek enpresen kudeaketan duten sarrera, eta pandemiak azken bi urte hauetan azaleratu dituen prebentzio-kudeaketako erronka berriak erronka batzuk baino ez dira, «Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren 2021-2026 Euskal Estrategia» berriak aurrean dituen horien artean. 2021ean, beraz, horiei guztiei erantzuteko ahalegina egin da, enpresek erronka horiek modu egonkorrean kudeatu ahal izateko ekintzen bidez.



Aipatzekoa da, era berean, 2021. urtean COVID-19aren pandemiak aktibo jarraitu duenez, giza baliabideak eta bitarteko materialak bideratu behar izan direla lan-arloan kasu positiboak arakatzeko eta osasun-agintariekin lankidetzan aritzeko.

Jarraian, OSALANek 2021. urteko Kudeaketa Planean garatu dituen lan-arlo desberdinetan egin diren jarduerak deskribatzen dira.



3. JARDUERA-ARLOAK

3.1. Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa

Komunikabideak, webgunea eta gizarte-sareak

Zuzendarien eta teknikarien bidez, OSALAN komunikabideetan egon da, honako hauek tarteko:

- 15 elkarrizketa irratian, telebistan eta prentsan.
- 17 prentsa-ohar.
- 5 prentsaurreko.
- 7 erreportaje.
- 2 kanpaina.
 - Kontzientziazio-kanpaina: «Bat egiten duzu?», irrati-tarteen, bitarteko digitalako banner-en, prentsa idatziko oharren eta gizarte-sareetako hedapenaren bidez. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Egunaren inguruan garatua.
 - Kanpaina: «Minak ez du aniztasunez ulertzen. Prebentzioak, bai». Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Europako Astearen inguruan garatua.

OSALANen webgunean Gaztepreben eta Psikopreben zerbitzuen mikrowebguneak mantendu dira.

Era berean, OSALANek gizarte-sareetan egoten jarraitu du: OSALAN eta Itsaspreben kanalak Youtube, Facebook eta Twitterren:



1. taula: OSALANeko webguneko eta gizarte-sareetako trafikoaren gaineko datuak

Ekitaldia	Saioak	Erabiltzaileak	YouTubeko Itsaspreben kanaleko erreproduzioen kopurua	YouTubeko OSALAN kanaleko erreproduzioen kopurua
2019	265.928	213.087	64.949	201.035
2020	383.368	294.638	43.162	265.305
2021	620.894	320.626	54.826	272.953



Idoia Mencia, Lan eta Enplegu sailburua

Prebentzioaren kulturaren gaineko hitzaldiak, jardunaldiak, argitalpenak eta beste dibulgazio-jarduera batzuk

Erakunde eta instituzioekin lankidetzan, OSALANen dibulgazio-lanaren barruan, 43 hitzaldi eta aurkezpen egin dira 32 jardunaldi tekniko/dibulgaziozkotan, askotariko kolektiboetara zuzenduta:

- «Istripuen berri emateko ataria». IPAFek antolatuta (Sarbidetako Nazioarteko Federazioa - International Powered Access Federation).
- «Aurrerapenak laneko osasunean eta genero-ikuspegidun lan-baldintzak». Antolatzailea: EMAKUNDE.

- «Segurtasun eta osasuneko planak eta azterketak: zelan idatzi beste era batera». Antolatzailea: Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala.
- «COVID-19aren eraginaren kudeaketa eraikuntza-obretan». Antolatzailea: Eraikuntza Obretako Segurtasuneko eta Osasuneko Ingeniaritzen Elkarte Profesionala (ISSCO).
- «Silize kristalino arnagarria eraikuntzaren sektorean». Antolatzailea: Eraikuntzaren Lan Fundazioa.
- «Erakundeetan prebentzioa sartu eta kudeatzeko sistemak». Antolatzailea: Euskadiko Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkarte (APD).
- Jardunaldi teknikoak: «Ekitaldiak muntatzeko irizpide teknikoei eta jardunbide onei buruzko agirien aurkezpena». Antolatzailea: Madrilgo Erkidegoko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Eskualde Institutua (IRSST).
- «Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspuntua txertatzeko jarraibideak». Antolatzailea: Women in Mining and Industry Elkarte.
- «Agente kimikoeikiko esposizioaren ebaluazioa». Antolatzailea: IMQ Prevención kanpoko prebentzio-zerbitzua.
- «Laneko osasun psikosozialerako garai berri bat». Antolatzailea: Arrisku Psikosozialen Behatokia-Laborategia (LARPSICO), Lan Arriskuak Prebenitzeko Andaluziako Institutua (IAPRL).
- «Erronkak lehen sektoreko lan-arriskuen prebentzioan eta horren balio-katea 2019-2025». Antolatzailea: Azti.
- «Lan-arloko berdintasunari buruzko webinarra, gizarte-eragileei zuzenduta». Antolatzailea: Asturiasko Printzerria.
- «Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko XXII. Biltzarra». Antolatzailea: Canadian Centre for Occupational Health & Safety.
- «Enpresa Osasuntsua» foroa. Antolatzailea: El Correo.
- «Laneko osasuna eta lan jasangarria». Antolatzailea: Itsasoaren Nazioarteko Unibertsitatea (Unimar).
- «Enpresa-jardueren koordinazioa: zer jakin behar du enpresariak». Antolatzailea: Euskadiko Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkarte (APD).
- «Safety Leaders Euskadi: Segurtasun Buruak». Antolatzailea: Preven Control.
- «Ariketak lanean eta osasuna». Antolatzailea: SEA Enpresa Arabarrak.
- «Prevencionar-en Nazioarteko III. Biltzarra 2021». Antolatzailea: Prevencionar.
- «Lan-arriskuen digitalizazioa eta prebentzioa: aukerak, erronkak eta erantzukizunak». Antolatzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- «GeoEuskadiren II. Biltzarra: Kartografia eta Informazio Geografikoa». Antolatzailea: GeoEuskadi.



- «Lan-arriskuen prebentzioa eta genero-politikak». Antolatzailea: Madrilgo Erkidegoko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Eskualde Institutua (IRSST).
- «Elikadura osasungarria». Antolatzailea: SEA Enpresa Arabarrak.
- «Eraikuntzaren industriako segurtasunaren eta osasunaren gaineko berrikuntza». Antolatzailea: Euskal Herriko Eraikuntzaren Industriaren Klusterra – ERAIKUNE.
- «Giro psikosoziala lanean». Antolatzailea: SEA Enpresa Arabarrak.
- «Laneko Osasun eta Segurtasunaren San Prudencio Fundazioaren XXI. Biltzarra: osasun emozionala eta ziberpsikologia». Ekintza-proposamenak. Antolatzailea: San Prudencio Fundazioa.
- «Langileen osasunaren zaintza: zer jakin behar du enpresariak?». Antolatzailea: APD Euskadi.
- «Enpresa osasuntsua. Sari-banaketa». Antolatzailea: SEA Enpresa Arabarrak.
- «Euskadiko laneko bide-ezbeharren Behatokiaren 2020ko datuen aurkezpena». Antolatzaileak: Asepeyo eta CNAE.
- «Genero-ikuspegia eraikuntzaren sektoreko lan-arriskuen prebentzioan» foroa. Antolatzailea: Euskadiko Eraikuntzaren Lan Fundazioa.
- «Pandemia, osasun emozionala, arrisku psikosozialak lanean eta pertsonen eskubi-deak». Antolatzailea: Deustuko Unibertsitatea.
- «Enpresek sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren kontra dituzten protokoloen testuingurua eta alderdi praktikoak». Antolatzailea: EMAKUNDE.
- Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko XI. Udako Ikastaroa: «Dibertsitatea eta Laneko Arriskuen Prebentzioa» (2021eko ekainak 17 eta 18), UPV/EHurekin lankidetzan.

2021ean, OSALANek honako argitalpen hauek egin eta zabaldu ditu:

- «Laneko arriskuen aurrean diren jarreretan eta portaeretan eta horien ondoriozko kalteetan eragiten duten genero-faktore nagusiak».
- «Osasuna zaintzeko berariazko protokoloa. Silikosisa».
- «Zur-hautsarekiko esposiziopean izaten diren langileei sudur-barrunbeetako eta sinu paranasaletako adenokartzinomaren kontrako berariazko osasun-zaintza egiteko protokoloa».
- «2020ko Jardueren memoria».
- «2021eko Kudeaketa-plana».
- «Trenbide-gainegiturak eraikitzean sortzen diren lan-arriskuak prebenitzeko gidaliburua. Obra berria».
- «Lan-istripuak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2020. urteko txostena».

- «Gaixotasun profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2020. urteko txostena».
- «Enpresetan arrisku psikosozialak genero-ikuspegia aintzat hartuta prebenitzeko dekalogo».

Era berean, OSALANek, 2021ean, formatu digitalean berrargitaratu ditu honako hauek:

- «Prebentzio-Ordezkarien oinarrizko Prestakuntza (2017).

Haur eta nerabeen kolektiboan zabalkunde eta prestakuntzako ahalegin handia egin da, etorkizuneko langileak direnez gero duten garrantziagatik:

- GAZTEPREBEN mikro-webgunea mantendu egin da. Bertan, laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako edukiak jasotzen dira, haurrei eta gazteei bereziki zuzenduta.
- Lanbide Heziketako ikasleen arteko dibulgazioa eta prestakuntza: ADI proiektuaren esparruan, zeina FTSIrekin (Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin) lankidetzan garatzen baita, lanbide-heziketako 10 ikastetxeko 491 ikasle gizonezko eta 43 ikasle emakumezko jaso dituzte prestakuntza-saioak.



Prebentzio Zerbitzuetako teknikariei zuzendutako lehen tailerra:
Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa (Bilbo, 2021eko azaroaren 30a).



3.2. Eragileen inplikazioa eta laguntza

OSALANentzako lehentasunezko beste lan-arlo bat honako hau da: Autonomia Erkidegoaren eremuan lan-arriskuen prebentzioan inplikaturako eragile askoren elkarrizketa eta partaidetza sustatzea, eta Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Institutuaren mezuak herritarrei helaraztea, horiei prebentzioan lagundu eta inplikatzen diren tresnak eskaini birtartean.

Gizartearen partaidetza

Herritarrek gizarte-sareetan eta web-orrian duten partaidetza igo egin da iazko urtearen aldean. Bisitak, guztira, 620.894 izan dira.

Halaber, 542 «follower» berri gehitu dira Twitter-en eta 62 «atsegin dut» gehiago Facebooken.

OSALANek herritarrekin elkarrekintzan aritzeko postontzi bat dauka eta, horren bidez, eskaerak eta kontsultak bideratzen dira. 2020. urtean, kontsulta horiek nabarmen igo dira. Guztira, laneko segurtasunarekin eta lanarekin lotutako 760 kontsulta artatu dira.



Emakunderen (Izaskun Landaida Larizgoitia, zuzendaria), Lan eta Enplegu Sailaren (Elena Pérez Barredo, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea) eta OSALANen (Lourdes Iscar Reina, zuzendari nagusia) lankidetzak, generoa laneko arriskuen prebentzioan txertatzeko

Lankidetzaren prebentzioko agenteekin

OSALANek 37 lankidetzaren hitzarmen eta -akordio ditu 32 erakunde eta instituzioekin.

OSALANek, ere berean, hiruko topagune izaten jarraitzen du, gizarte-eragile eta administrazioarekin batera, Kontseilu Nagusiaren eta horren barruan sortutako batzordeen bidez. Esparru horretan zehazten dira Erakundeak garatu beharreko politika eta ekintza nagusiak, eta horien gaineko jarraipena egiten da.

Era berean, OSALANen Kontseilu Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialaren Mahaian adosten diren gomendioak jasotzen ditu.

Hiruko topaguneaz gain, elkarrizketa eta lankidetzaren estu eta iraunkorra du, ez soilik gizarte-eragileekin, baita prebentzioko ordezkariekin, prebentzioko erakunde espezializatuekin eta prebentzioko elkarteekin ere, horren bidez ekimenak, proiektuak eta estrategiak garatzeko interes partekatuko arloak identifikatzeko.

Elkarrizketa eta lankidetzaren adibide, OSALANek «2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala» garatzen parte hartzen du, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin batera (nekazaritza, arrantza eta elikagaien politikaren arloa eta portuen arloa), eta sektorean lan egiten duten eragile sektorial, sozio-laboral eta teknologikoen batera.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin, eragilerekin, erakunde eta instituzioekin aritu izan da eta oraindik ere aritzen da lankidetzan, honako jarduerak egiteko laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan:

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzaren Euskal osasun zerbitzuarekin:
 - Lan-arloan COVID-19ak dituen agerraldiak prebenitzeko eta horien jarraipena egiteko. Horretarako, dibulgazio materiala egin da, lankidetzan, eta, kasu jakin batzuetan, kasu positiboen eta kontaktu estuen jarraipena egin da zuzenean.
 - Osakidetzako osasun-langileen laneko osasunaren gaineko prestakuntza sustatzeko, gaixotasun profesionalaren susmoa adierazten dela bultzatze aldera.
 - Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin, Osakidetzaren barruan, barneko mediku eta erizain egoiliarren prestakuntzan.
 - Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, araudia garatzeko proposamenak ezartzeko.



- AZTI-Tecnaliarekin, 2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala (EuskadiPreben25) garatu ahal izateko proiektuak egiteko.
- BASKEGUR-ekin, egurgintzaren/basogintzaren sektorean laneko segurtasuneko eta osasuneko baldintzak sustatzeko kanpainak egiteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearteko Mahaiarekin, Arabako Lurralde Historikoan nekazaritzako sasoikako lanen kanpaina egiteko.
- COMSA-EMTE, OHL, DRAGADOS, ACCIONA eta FERROVIAL, eta AGROMAN enpresetako profesionalekin, «Trenbide-azpiegiturak eraikitzean laneko arriskuak prebenitzeko gida» egiteko.
- Azpiegitura Handien Batzordearekin, herri-lanetan eta azpiegitura handietako zereginetan laneko arriskuen prebentzioa txertatzeko.
- Enpresa Handien Foroarekin, enpresa handietako jardueren koordinazioaren egoera aztertu eta esperientziak eta hobetzeko aukerak trukatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinaren segurtasunari buruzko 2006/42/CE Zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, horretarako dagoen protokoloari jarraituz.
- Segurtasun Industrialaren Espainiako Plataforma Teknologikoarekin (PESI) eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzarekin, bideko istripuen arriskua errazten lagunduko duten ekintzak garatzeko.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin (INSS):
 - Ezintasunak Baloratzeko Ekipoen bileretan parte hartuz.
 - «Amiantoaren esposiziopean egon daitezkeen langileen» fitxategia kudeatuz, lana utzi ostean osasuna zaintze aldera.
- Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin, prebentzio-zerbitzueta osasun-langileen prestakuntza eman eta sustatzeko.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU):
 - EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearekin, erizaintzako ikasleei prestakuntza emateko.
 - EHUko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren arloko Masterrean.
- FTSIrekin (Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin), «ADI proiektua» garatzen, EAEko lanbide-heziketako ikasle gazteen artean prebentzioaren kultura sustatzeko asmoz, horiek baitira lan-merkatuko etorkizuneko langileak.

3. JARDUERA-ARLOAK

- Ikerketa Sanitariorako Biodonostia Institutuarekin, bere proiektuan: «Asbestoa daukaten gorputzen zehaztapena biriketako minbizia izan duten pazienteen artean».
- CONFEBASKein, SEGURMANIA ZUREKIN kanpainan.
- Comisiones Obreras CCOO sindikatuarekin, muskulu eta hezurretako nahasmenduak prebenitzeko jarduera-lerroetan.
- Unión General de Trabajadores UGT sindikatuarekin, prebentzioko ordezkarietzako prebentzio-tresnak garatzen.



Laneko psikosozioiologiari buruzko XI. Jardunaldiak:
telelana, laneko arriskuen prebentziorako erronka berriak
(Bilbo, 2021eko azaroaren 12a)



3.3. Informazioa

Informazioaren arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren laneko segurtasunaren eta osasunaren egoera eta bilakaera ikuskatze aldera, OSALANek honako informazio-sistema hauek kudeatu ditu, Erakundeak berak garatuta:

- Laneko segurtasun eta osasuneko datuen informazio-sistema: Datuen Gutxieneko Multzoa (DGM).
- Osasun Zerbitzuen eta Osasun Jardueren fitxategia, bai eta ikuskaritza-erakunde espezializatuen ere.

Amiantoaren esposiziopean egoteko aukerak dituzten langileen erregistroa kudeatzen eta mantentzen jarraitu da, lana utzi ostean osasunaren zaintza bermatzeko.

2. taula: Amiantoaren esposiziopean egon ahal izan diren langileen 2021eko erregistroaren kudeaketa

Sarrera berriak zerrendan: 520 (506 gizon eta 14 emakume)

Lana utzi osteko zaintza:

- Programara gonbidatuak: 447 (436 gizon eta 11 emakume)
- Osakidetzaren zaintzapean: 265 (258 gizon eta 7 emakume)
- Zaintza beste autonomia-erkidego batzuetan: 28 gizon

KUDEATUTAKO ERREGISTROAK GUZTIRA: 11.900 (11.233 gizon eta 667 emakume)

Era berean, laneko historia klinikoaren eredia eta ikuskaritza-erakunde espezializatuen fitxategia ezartzen jarraitzen da.

Informazioaren eremu horretan bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko ezbeharren eta gaixotasun profesionalaren 2020. urteko txostenak egin dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu diren eta heriotza eragin duten edo oso larriak, larriak edo anizkunak izan diren lan-istripuen faktore erabakigarriak eta kausak aztertu eta ikertzean informazioa eskuratu da, bai eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jo diren istripu arinen kasuan ere.

3. taula: 2021. urtean ikertutako istripuak

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hilgarriak	Traumatikoak	4	10	6
	Ez-traumatikoak	3	3	5
	In itinere	1		4
	Misioan			1
Oso larriak/larriak	Traumatikoak	7	46	44
	Ez-traumatikoak	21		2
	In itinere			7
	Misioan		1	2
Arinak	Traumatikoak	21	14	19
Anizkunak	Traumatikoak			
Sailkatu gabeak	Traumatikoak			3
Guztira		57	74	93
Guztira, EAE		224		
Istripu arinen jarraipenen kopurua		1.021		



OSALANeko langileak



Era berean, beste kausa eta faktore erabakigarri batzuk ere aztertu ditugu, honako hauen inguruko informazioa jasotzeko: gaixotasun profesionalak, lanetik eratorri izan ahal diren gaixotasunak, gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak eta osasun-alertak. Horrez gain, gaixotasun horiek prebenitzeko azterketa egin da, bai eta bidezkoak diren zuzenketa-neurriak proposatu ere:

4. taula: Gaixotasun profesionalaren susmoaren jakinarazpenak lurraldeen eta jatorriaren arabera. 2021. urtea

Jatorria	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE, guztira
Prebentzio-zerbitzuak	30	57	87	174
Osakidetzako osasun-zerbitzuak	29	119	50	198
Guztira, EAE	59	176	137	372

5. taula: Patologia infekziosoa lan-inguruan: kasuak edo/eta agerraldiak. 2021. urtea

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Egindako ikerketen kopurua				
Legionella	1	12	0	13
Q sukarra	0	9	0	9
Hazteria	0	12	21	33
Egindako txostenen kopurua				
Legionella	0	2	0	2
Hazteria		1		1

3.4. Ikerketa

Erakundeko ikerketa-arlo desberdinen barruan, honako eremu hauetako ikerketa-lerroei eutsi zaie:

- Lan-istripuen zaintza epidemiologikoa.
- Ezbeharren patroien identifikazioa.
- Laneko minbizia: Mesotelioma, sudur-hobien eta sinu paranasalen adenokartzinoma eta angiosarkoma hepaticoa.
- Laneko segurtasun eta osasunean eragina duten genero-faktoreei buruzko azterketa.

Era berean, OSALAN jarraipena egiten ari da SAF€ERA deialdiaren eremuan ikerketa-proiektuen laguntzen 2020. urteko deialdian onartutako ikerketa-proiektuen gainean. Talde europar hori segurtasun industrialaren eremuan ikerketan lankidetzan aritzen da, Europa adimentsu eta ja-sangarria lortzeko. Proiektuak 2022. urtean amaituko dira. OSALANek 2020. urtean emandako dirulaguntza honi esker, ikerketak egin daitezke Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako erakundeekin batera, energia biltzeko elementu seguruagoak garatzeko laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan nahiz ingurumenean; hartara, onurak sortzen dira enpresentzat, langileentzat eta, oro har, biztanleentzat.

6. taula: 2020ko SAF€ERA deialdi europarraren eremuan diruz lagundu diren eta jarraipena izaten ari diren proiektuak

Erakundea	Proiektua
GAIKER fundazioa	Litiozko ionen bateriaren bizi-zikloa: segurtasuneko arriskuak eta arriskuen kudeaketa lantokietan.
BBD BIOPHENIX SL	Fluxu-baterien elektrolitoen segurtasunaren gaineko ebaluazioa.



3.5. Prestakuntza

OSALANek urtero hainbat prestakuntza-ekintza egiten ditu –horretarako gaitutako eragileek ematen duten prestakuntza arautuaren osagarri direnak–, enpresetan prebentzio-ekintzak gauzatzeko ardura daukaten pertsoneri zuzenduta:

- Prebentzioko ordezkarien prestakuntzarako dirulaguntza.

7. taula. 2021. urtean prestakuntza jaso duten prebentzioko ordezkariak

Lurraldeak	Prestakuntza normatiboa Prebentzio-ordezkarien kop.	Prestakuntza teknikoa Prebentzio-ordezkarien kop.	Prebentzio-ordezkarien kop. Guztira	Gizonak	Emakumeak	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
Araba	111	97	208	145	63	30.443,61 €
Bizkaia	357	233	590	378	212	77.791,35 €
Gipuzkoa	153	225	378	265	113	60.287,80 €
Guztira	621	555	1.176	788	388	168.522,76 €

- 2021. urtean, OSALANek dirulaguntza-lerro bat hasi du, langile autonomoen prestakuntza sustatzeko, kolektibo honetako elkarte profesionali eta irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzenduta.

8. taula. 2021. urtean prestakuntza jaso duten langile autonomoak

Erakundea	Prestakuntza jaso duten langile autonomo gizonazkoen kopurua	Prestakuntza jaso duten langile autonomo emakumezkoen kopurua	Dirulaguntza (€)
INGURALDE	4	2	1.200

- Lan Medikuntzaren EAEko Irakaskuntza Unitateko barneko mediku egoiliarren (R4) prestakuntza: OSALANetik 10 pertsona pasatu dira 2021ean (3 Araba, 6 Bizkaia eta 1 Gipuzkoa).

- EHUrekin sinatu zen hitzarmenaren arabera, 2021ean OSALANen praktikak egin dituzte, Bizkaiko Laneko Osasuneko Unitatean, erizaintzako 2 ikaslek.
- Laneko osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileentzako prestakuntza.

9. taula: Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-jarduerak. 2021. urtea

Antolatutako tailerrak	Tailer-kopurua	Emakumeak	Gizonak	Guztira
COVID-19 txertoen eguneraketa	1	120	64	184
Silikosiaren protokolo berriaren aurkezpena	1	109	70	179
Osasunaren Zaintzaren gidaliburuaren aurkezpena	1	110	76	186
Zur-hautsaren adenokartzinomaren protokoloaren eta zarataren protokoloaren aurkezpena	1	30	22	52

- OSALANek hiru prestakuntza-bideo egin eta argitaratu ditu, Osakidetzaiko osasun-langileen artean laneko osasuneko prestakuntza sustatzeko:
 - Gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema.
 - Lana utzi osteko zaintza (amianto).
 - Lanerako ezintasun-egoeran dauden pazienteen lanerako itzulera.
- OSALANek, gainera, hitzarmen bat du EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearekin, EHUko Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren masterra bultzatzeko, ez soilik finantzaketan, baita irakaskuntza-lanetan ere; hala, masterreko 65 ikastordu ematen dituzte OSALANeko teknikariek, horietako 4 ikastordu laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan genero-ikuspegia txertatzeari buruz.



3.6. Jakintzaren hedapena

Jarduera hori, lantokietan interesdunekin zuzenean garatutakoa, funtsezkoa da laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko ezagutza benetan ailegatu dadin beren eguneroko zereginetan hura aplikatu behar duten pertsonengana. Hala, 2021ean zehar:

- OSALANek laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko aholkularitza eman du 1.200 lantokitan egindako bisitetan zehar, lantokiak irekitzeko jakinarazpena jaso ondoren, lehen sektorean, industrian, zerbitzuetan eta eraikuntzan.

10. taula: Ireki berri diren eta bisitatu diren lantokiak

LH	Lehen sektorea	Industria	Zerbitzuak	Eraikuntza
Araba	4	2	8	175
Bizkaia		40		341
Gipuzkoa	4	23	56	240
Guztira	8	65	64	756

- Enpresek, langileek, herritarrek, haien ordezkariak eta prebentzio-erakundeek OSALANen eskumenei dagokienez laguntza teknikoa jasotzeko egiten dituzten eskaera guztiei erantzuna eta aholkularitza eskaini dizkie OSALANek.
- OSALANek tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak antolatu ditu, maila teknikoan eta dibulгатiboan:

11. taula: OSALANek 2021. urtean antolatutako jardunaldi eta ekitaldiak

Jardunaldi eta ekitaldiak
Prebentzio-zerbitzuetako teknikariei zuzendutako lehen tailerra: lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa.
Laneko Psikosoziologiaren OSALANen XI. Jardunaldiak: telelana, prebentziorako erronka berria.
Eraikuntzako jardunaldi teknikoak.
Arrisku psikosozialei eta lanari buruzko jardunaldia.
Langile autonomoei zuzendutako informazio-hitzaldia: enpresa-jardueren koordinazioa.
Silikosia: osasuna zaintzeko berriazko protokolo berria aurkezteko jardunaldia.
Jardunaldi teknikoak: Lan-arriskuen prebentzioa eta robotika lankidea.
Jardunaldi teknikoak: Laneko arriskuen prebentzioaren esparru juridiko-arautzailea Industria 4.0.ren aurrean.
Jardunaldi teknikoak: Datuen babes 4.0 industriaren aurrean.
Langile autonomoei zuzendutako informazio-hitzaldia: Zer jakin behar dut lan-arriskuen prebentziora buruz?
Laneko arriskuen prebentziorako osasun-zaintzako orientazioko oinarrizko gida orokorra aurkezteko jardunaldia.
Eguneratze-tailerra: Covid-19 txertoak eta prebentzio-zerbitzuetan izan daitezkeen aplikazioak.

- Osasuna sustatzeko programen dibulgazioko materiala egin da:
 - Osasuna sustatzeko planak enpresetan.
 - Jarduera fisikoa eta lana.
 - Hankabitasuna eta lana.
- Gainerako autonomia-erkidegoekin lankidetzan, eta Lan Arriskuen Prebentziorako Batzorde Nazionalaren barruan, aplikazio bat garatu eta diseinatu da, oinarrizko zuzentarau batzuk ematen dituena enpresan laneko bide-segurtasuna ebaluatu eta kudeatzeko.



2021



2026

**LANEKO SEGURTASUN ETA
OSASUNERAKO EUSKAL
ESTRATEGIA**



3.7. Prebentzio jardueraren kalitatea

OSALANek enpresetan lan-arriskuen prebentziorako jardueren kalitatea sustatzeko lan-lerro bat mantentzen du, eta, horretarako, agentei –bereziki, enpresariei, prebentzioko ordezkariari eta prebentzio-erakundeetako langile tekniko eta sanitarioei– beren egitekoak egiteko erraztasunak ematen dizkieten tresnak garatzen ditu. Lan-ildo honetan sartzen diren ekimenak honako hauek dira:

- **Sektore eta diziplina desberdinetan prebentzioko jarduerak egiteko gidak, protokoloak, jarraibideak eta gomendioak:**
 - «*Trenbide-azpiegiturak eraikitzean laneko arriskuak prebenitzeko gidaren*» 1. zatia amaitu da, eta 2. zatia egiteko lanak hasi dira.
 - Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspuntua txertatzeko jarraibideak garatu dira.
 - Produktu kimikoen esposiziopean dauden langileen osasuna zaintzeko gida prestatze-fasean da.
 - Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak planifikatzeko gidaren agiria martxan dago.
 - Osasuna zaintzeko protokoloak egin, berrikusi eta hedatzeko lanarekin jarraitzen da.
 - «Prebentzio-baliabidearen eskuliburua» eguneratzen jarraitzen dugu CANO proiektuan, Kantauri itsasertzeko erkidegoetako laneko segurtasun eta osasunerako institutuekin lankidetzan.
- Proiektu bat garatzen ari gara, enpresa handietako jardueren koordinazioaren egoera aztertzeko eta prebentzio-jarduera horretan hobetzeko esperientzien eta aukeren trukea sustatzeko.

3.8. Lan-baldintzen hobekuntza

2021. urtean, COVID-19aren pandemiaren eraginez, lan-arloko sektore guztietan sortu diren egoerak kudeatzera bideratu dira OSALANen jarduera eta baliabideetako batzuk, osasun-agintariekin eta prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan. Zeregin horretan honako hauek egin dira:

- COVID-19 positiboen kontaktu estuak arakatzeko eta arakatzeko zabalak egiteko prozedura garatu da, eta lan-arloko taldeen azterketa egin da.
 - OSALANek kudeatutako COVID-19 kasuen kopurua: 43.121.



- OSALANek aitortutako COVID-19 kasuen kopurua: 6.401.
- Ukitutako lantokien kopurua: 29.592.
- Lan-kontaktu estuen kopurua: 26.178.
- Identifikatutako agerraldien kopurua: 591.
- Kontaktu estuen bidezko aldi baterako ezintasunen kopurua, OSALANen datuen gutxieneko multzoaren bidez kudeatuta: 9.686.
- Jarduera jarraituko jarraibideak egin eta Prebentzio Zerbitzuetara eta Lagunarora bidali dira.
- COVID-19aren kasu probable, posible edo berretsien aurrean kontaktu estuak bi-latzeko eta infekzio-fokuak identifikatzeko jarraitu beharreko jarraibideak bidali di-tugu prebentzio-zerbitzuetara, arakatze zabalaren bidez, COVID-19aren kasuetan. Jarraibideen jarraipen zuzenean lankidetzan aritu gara prebentzio-zerbitzuekin.
- COVID-19ak lan-arloan dituen agerraldiak komunikatu eta horien aurrean jardun dugu. Jarraibideen jarraipen zuzenean lankidetzan aritu gara prebentzio-zerbitzuekin.
- 2021 denboraldian Arabako Errioxan mahats-bilketan lan egiten duten sasoikako langileekin baheketa-gailua martxan jartzen eta kanpaina garatzen parte hartu dugu.
- «Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan eta eli-kadura-industriako ustiattegietan COVID-19ari eusteko jarduera-protokoloa» berri-kusten parte hartu dugu.
- Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin eta Zuzendariordeekin koordinatzeko tal-dean parte hartu dugu.
- COVID-19aren pandemiaren egoeraren ondorioz laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako 216 kontsultari eman zaie erantzuna.
- COVID-19aren pandemiak 2021ean iraun izanaren ondoriozko jardueren garape-nean, haren kontrolean inplikaturako eragileen artean egin eta banatu dira honako hauek:
 - 6 informazio-ohar.
 - 2 txosten.
 - 5 agiri.
 - argitalpen 1.
- Hiru hitzalditan parte hartu da:
 - Osasun Ministerioaren Lan Osasuneko ponentzia, zentro soziosanitarioetako langileen nahitaezko txertaketari buruzko dokumentua egiteko.

- Osasun Ministerioaren Lan Osasuneko ponentzia, Osasun Ministerioaren COVID-19 gaitza goiz detektatzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko estrategiari ekarpenak egiteko.
- Osasun Ministerioaren Lan Osasuneko ponentzia, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legea aldatzeko proposamenak egiteko.
- PDIak (infekzio aktiboko diagnostiko-probak) kudeatu ditugu mugakide diren autonomia-erkidegoetako kontaktu estuetan.
- Prebentzio Zerbitzuen taldearen 7 bileretan parte hartu da, eta informazioa bidali da 2021ean COVID-19aren pandemia kontrolatzeko ezarri ziren jarraibide, prozedura eta estrategiei buruz.
- Revista Española de Salud Pública aldizkarian argitaratu da «El rastreo de la COVID-19 en el mundo laboral. La experiencia del País Vasco» izeneko lana, lan-osasunari eta COVIDari buruzko monografikoan.

OSALANek arrisku psikosozialaren prebentzioaren gaineko aholkularitza eta laguntza teknikoa garatzen du, enpresei zuzenduta.

3.9. Kudeaketan lan-arriskuen prebentzioa integratzea

OSALANek bere jarduera lan-arriskuen prebentzioa bere enpresa-kudeaketan integratzeko arazo gehien dituztenengana bideratzen du, hala nola, enpresa txiki eta ertainetara eta prebentzioarekiko oso iragazkorak ez diren sektoreetako enpresetara, besteak beste lehen sektorerara eta eraikuntzara. Ardatz honen barruan, honako jarduera hauek egin dira:

- «2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala» garatzen lankidetzan dihardu OSALANek. Tes-tuinguru horretan, lehen sektoreko hainbat kanpaina egin dira.
 - Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioa txertatu dadila sustatzeko, OSALANeko teknikariek hainbat bisita egin dituzte sasoikako langileen 2021eko kanpainan sartutako ustiategietara. Urtean zehar, ustiategi horietara 32 bisita egin dira.
- Arabako nekazaritza-langileen osasun-zaintzaren kalitatea hobetzeko asmoz, Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza-sektoreko 304 enpresatan osasunaren zaintzari buruzko azterlan bat eginen aritu gara.
- Organo eskudunekin lankidetzaz jarduerak garatu dira, xede izanik herri-lanetan eta azpiegitura handietako zereginetan laneko arriskuen prebentzioa txerta dadin bul-tzatzea.



3.10. Administrazioen arteko koordinazioa

2021. urtean, 2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia egiteko lidergoa hartu du OSALANek eta hura martxan jarri. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan laneko segurtasunaren eta osasunaren egungo egoeraren diagnostikoa egiten aritu da, eta estrategiaren barruan garatu beharko diren helburu estrategikoak eta operatiboak prestatzen, estrategia berri honen jarduera-eremu guztietan genero-ikuspegia sartuz.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan eskumena duten administrazio eta agintarientzako koordinazio, aholkularitza eta laguntza teknikoaren esparruan, OSALANek honako jarduera hauek egin ditu 2021ean:

- Lan Agintaritzarekin lankidetzan aritu da amiantoaren duten materialak kentzeko lanak kontrolatzeko.

12. taula: Amiantoaren duten materialak kentzeko lan-planen kontrola, Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztutako horien artean. 2021. urtea

AURKEZTUTAKO PLANAK				
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aurkeztutako planak, guztira	210	285	294	789
Plana aurkeztu duten enpresen kopurua	24	41	43	108
ONARTUTAKO PLANAK				
Onartutako planak, guztira	192	268	256	716
EGINIKO BISITALDIAK				
Txostena egin aurreko bisitaldiak	9	5	50	64
Egiatzapen-bisitak	180	31	14	225
Eginiko bisitaldiak, guztira	189	36	64	289

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara, oinarrizko irizpideak eta garapen-arauen proposamenak ezartzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera kontrolatzeko eginkizunak betez, bai prebentzio-zerbitzu propioetan (PZP), bai kanpoko prebentzio-zerbitzuetan (KPZ), honako emaitza hauekin:

13. taula: Eskumenak garatzea, prebentzio-zerbitzuen kontrolari eta baimen sanitarioari dagokienez

Jarduera	PZP	KPZ	
Instalazioak instalatzeko eta martxan jartzeko, aldatzeko, berritzeko, eta eteteko eta langileak aldatzeko osasun-baimena	Jasotako eskaeren kopurua	22	78
	Egindako txostenak	28	88
	Egindako errekerimenduak	2	4
Ofiziozko jarduerak instalazioak baimentzeko, aldatzeko, berritzeko eta eteteko prozedurei eta langileak aldatzeko prozedurei dagokienez	Hasita	2	8
	Egindako txostenak	1	5
	Egindako errekerimenduak	2	7
	Egindako errekerimenduak		4
	Azpi-kontrataziorako eskaerak	2	
	Egindako txostenak	1	
	Egindako errekerimenduak	3	
Farmazia-prestazioa	Izapidetutako eskaerak	2	
Auditoretzak	Jasotako eskaeren kopurua	1	
	Egindako txostenak	1	

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara proiektu handiak ezartzeko eta garatzeko, hala nola:
 - Datuen Gutxieneko Multzoa (DGM).
 - Laneko historia klinikoaren eredu.
 - Gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema.



- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin lankidetzan aritu gara, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinaren segurtasunari buruzko 2006/46/EE Zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, horretarako da-
goen protokoloari jarraituz.
- Lan-agintaritzak eskatuta, kanpoko prebentzio-zerbitzuek egiaztapen-baldintzak betetzen dituztela kontrolatu dugu eta prebentzio-zerbitzu mankomunatuak eratu ditugu.
- Obra publikoko lan-arriskuen prebentzioaren eta azpiegitura handien jarraipena egin dugu, lurralde-eremuko erakunde arteko batzordeetan, honako hauek bertan direla: Lan eta Meategien Agintaritzak, Foru Aldundiak, inplikaturako enpresa pu-
blikoak, Lan Ikuskaritza eta OSALAN. Batzordeen 4 bilera egin dira, eta baterako 76 bisita egiaztatuta dira.
- EMAKUNDErekin lankidetzan aritu gara lan-arriskuen prebentzioan genero-ikus-
pegia txertatzeko eta lan-ingurunean emakumeen eta gizonen berdintasuna sus-
tatzeko.
- OSALANen laneko osasun-unitatearen eskumenen esparruari dagokionez jasotako salaketei erantzun diegu, osasun-agintaritza baitagokio prebentzio-zerbitzuetan.

14. taula: 2021. urtean OSALANen jasotako salaketak

Salaketak, osasun-agintaritza	27
Txostenak	20

- Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen laguntza teknikoko eskariak eta la-
neko ikuskaritzarenak artatu ditugu.

15. taula: Laneko, Osasuneko eta Justiziako Agintaritzen laguntza teknikoko eskaerak 2021. urtean

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Egindako txostenen kopurua	72	150	129	351

3.11. Erakundearteko lankidetzak

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, erakundeen arteko lankidetzak, ezinbestean, berezia izan da maila guztietan. Horren barruan, jarduera lankide nagusiak honako hauek dira:

- Lankidetzan aritu gara Osasun eta Lan eta Enplegu Sailekin, eta Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuarekin, lan-arloan COVID-19aren pandemia kontrolatzeko lanetan.
- COVID-19aren pandemiaren aurrean jarduteko protokolo eta jarduerak berrikusi ditugu, Eusko Jaurlaritzako honako Sail hauekin koordinatuta:
 - Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena.
 - Lana eta Enplegua.
 - Osasuna.
 - Kultura eta Hizkuntza Politika.
 - Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
 - Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.
- «Euskadin COVID-19aren pandemian ezarritako konfinamendua arintzeko fasean kasuak eta kontaktu estuak kontrolatzeko eta zaintzeko» planean parte hartu dugu, lan-arloko koordinazio-eginkizunak betetz, erakunde hauen lana bideratzeko: Osakidetzak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, prebentzio-zerbitzuak, enpresak eta denerikoko jarduera-sektoreetan inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Lankidetzan aritu gara Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekin, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapeneko Zuzendaritzarekin, Arabako Aldundiarekin, Osakidetzarekin eta upelategi-jabeen elkarteekin, mahasti-bilketan lan egiten duten kolektiboen artean COVID-19aren pandemiarekin lotutako prebentzio-jarduera guztiak koordinatzeko.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza eta Akui-kultura Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu gara, Atlantikoko eta Indiako ozeanoetan arrantza-lekuetatik iristen diren marinelen kasuen jarraipena egiteko.
- Osakidetzarekin lankidetzan aritu gara, gripearen txertaketa kudeatzeko, prozesu hori prebentzio-zerbitzuetan kudeatuz.

Beste arlo batzuetan, lankidetzak-jarduera nagusiak honako hauek izan dira:

- Toki Administrazioarekin lankidetzan aritu gara, OSALANek EAEko udalerriei emandako laguntza teknikoan ardaztuta, udalerrietako eraikin eta instalazioetan amiantoa duten materialak identifikatu eta kudeatzeko. Ildo horretan, erakundeak MCAREN udal-inbentarioak egitea sustatu du, tokiko erakundeekin bilerak eginez eta aholkularitza emanez.



- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin (GSIN) lankidetzan aritu gara, lan-istripuagatiko eta gaixotasun profesionalagatiko aintzatespen- eta konpentsazio-eskumenak gauzatzeko; horretarako, kide titular gisa joan gara Ezintasunak Baloesteko Taldeen 9 bileretara: 2021ean 15 ebaluazio-bileratan parte hartu da eta 88 kasu ebaluatu dira.
- Garatu eta jarraipena egin da honako hitzarmen honen gainean: hitzarmena, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuaren eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen artekoa, lanean amiantoa erabili izanagatik patologiak dauzkaten langileen aurrean elkarrekin jardutekoa.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren osoko bilkuretan parte hartu dugu, bai eta organo horren barruan sortutako batzorde eta lantaldeetan ere.
 - Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren Komitea.
 - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako Estrategiako lantaldea.
 - Suteak prebenitu eta itzaltzeko 2015-2020ko laneko segurtasun eta osasuneko estrategiaren azpi-lantaldea.
 - Amiantoaren lantaldea.
 - Eraikuntzako lantaldea.
 - Estalkien gaineko lanen azpi-lantaldea.
 - Altueran egindako aldi-baterako lanen azpi-lantaldea.
 - Nekazaritzaren sektoreko lantaldea.
 - Nekazaritzako makinaren azpi-lantaldea.
 - Nahasmendu muskuloesketikoen lantaldea.
 - Bide-segurtasuneko lantaldea.
 - Laneko arriskuen prebentzioko hezkuntza eta prestakuntzako lantaldea.
 - Arrantzaren itsas sektoreko lantaldea.
 - Ikuskizun publikoen lantaldea.
 - Ikuskizun publikoen muntaketako lantaldea.
 - Eraikuntzako ohiko galderen lantaldea.
 - Ustiapen profesionaleko mugen lantaldea.
- Bazkide moduan parte hartu dugu SAF-ERA ekimen europarrean, industriaren segurtasunean ikertzeko eta hazkunde jasangarria eta adimentsua izateko.

- Gaixotasun Profesionalaren Susmoaren Batzordean parte hartu dugu, Mediku Ikuskaritzekin, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Gizarte Segurantzako mutua lankideekin eta Osakidetzako Plangintza Zuzendariordetzarekin lankidetzan.
- UNEren Normalizazioko Batzorde Teknikoetan (NBT)-Normalizazioko Espainiako Elkartean parte hartu dugu:
 - 81 NBT Laneko segurtasuna eta osasuna: Babes-neurri kolektiboak.
 - 06 lantaldea: segurtasun-sareak jorratzen.
 - Lantaldea: ertza babesteko behin-behineko sistemak.
 - 81 NBT Laneko segurtasuna eta osasuna: agente kimikoen ebaluazioa.
 - 311 NBT Entretenimenduaren industria.
 - 180 NBT Altuerako aldi baterako lanetarako ekipamenduak.
 - 171 NBT Giro-kalitatea barnealdeetan.
 - Amiantoaren lantaldea.
- ISO-Normalizaziorako Nazioarteko Erakundearekin lankidetzan aritu gara:
 - ISO/ 283 Batzorde Teknikoa - 2 Lantaldea. Arrisku Psikosozialen Kudeaketa ISO 45001aren barruan.
 - ISO/ 283 Batzorde Teknikoa - 3 Lantaldea. ISO 45001 araua aplikatzeko gidak.
 - ISO/ 283 Batzorde Teknikoa - 5 Lantaldea. Gaixotasun infekziosoen kudeaketa.
- Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionalarekin lankidetzan aritu gara, honako lantaldeekin:
 - BASEQUIM lantaldea.
 - Espainiako nanomaterialaren balizko esposizioaren lantaldea.

Era berean, OSALANek honako batzorde eta komite hauetan ere parte hartu du:

- Gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko batzordea.
- Azpiegitura handien obra publikoan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egiteko batzordea.
- Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.
- Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura, Sailarteko Batzordea.
- Diskriminazio eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokia.



- 2020-2021 aldirako, sustantzia arriskutsuak tartean dituzten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko Zuzentarauaren (2012/18/EB) arabera ezarritako agintaritza eskudunen 54 C14000 Komiterako (Europako Batzordekoa) ordezkaritza autonomikoa.
- EMAKUNDEekin lankidetzan aritu gara, Laneko Arriskuen Prebentzioan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egiteko hitzarmena garatzeko. Bilera horretan, batzorde mistoaren 3 bilera eta baterako bi ekitaldi egin dira.

3.12. Osalanen zerbitzuak eta prozesuak

OSALANek bere barne-prozesuak eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak hobetzeko lanean jarraitzen du, 2021ean barrena egindako honako jarduera honekin:

- OSALANeko artxibo eta agirien kudeaketa EAeko administrazio orokor eta instituzionaleko artxibo eta kudeaketako sistemara egokitu dugu.
- OSALANeko Analisi Higienikoen Laborategiak emandako zerbitzuekin jarraitzen dugu.

16. taula: OSALANeko Analisi Higienikoen Laborategiaren 2021. urteko datuak

	Txostenak	Zehaztapenak
Kalitatearen kontrolerako egindakoak	25	313
OSALANek egindakoak	1	1
Kanpora egindakoak	237	2.844
Guztira	263	3.158
Analisia eskatu duten zerbitzu propioen kop.	7	
Fakturazioa	26.617 €	

- 2021eko aurrekontu-gauzatzea honako hau izan da:

17. taula: 2021. urteko gastuak eta diru-sarrerak

GASTUAK (Milaka €)		SARRERAK (Milaka €)	
Langileen gastuak	11.349,59	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	26,12
Funtzionamendu-gastuak	2.311,51	Transferentziak eta dirulaguntzak. Gastu arruntak	13.276,08
Finantza-gastuak	0,03	Ondarezko diru-sarrerak	0,00
Transferentziak eta dirulaguntzak. Gastu arruntak	1.227,98	Finantza-aktiboen murrizketa	8,08
Inbertsio errealak	145,61	Kapital-eragiketetarako dirulaguntzak eta transferentziak	0,00
Finantza-aktiboen igoera	8,00		
GUZTIRA	15.042,73	GUZTIRA	13.310,28

- Datu pertsonalak babesteko politikaren, informazio-sistemen eta agirien kudeaketaren ezarpena garatu dugu.
- Euskararen Erabileraren Normalizatzeko OSALANen VI. Plana garatu dugu (2018-2022 aldia).
- 2021. urteko jardueren memoria eta 2022ko kudeaketa-plana egin eta hedatu ditugu.
- OSALANen emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2018-2021 plana prestatu eta haren jarraipena egin dugu, haren % 82a betez.
 - PGEN 22 galdetegia eta OSALANeko aurrekontuaren gaineko eraginaren txostena egin ditugu.
 - Berdintasunari eta genero-ikuspegia Laneko Arriskuen Prebentzioan txertatzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak egin ditugu. 7 gizonek eta 35 emakumek parte hartu dute.



- Bestalde, OSALANek kudeaketa elektronikoa ezartzen jarraitzen du herritarrekiko zerbitzuetan, Administrazio Elektronikora egokitzeko helburuarekin.
- OSALAN bere instalazioak eta ekipoak berritzen ari da eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Halaber, bere Autobabes Plana bere instalazioen egitura berrietara egokitzen eta eguneratzen ari da.